Donostia, 2026ko azaroaren 9a

ALDAKETAK ASTEAZKENEAN, AZAROAK 11, EGUN HORRETAKO MANIFESTAZIOAK DIRELA ETA

Asteazkenean, azaroak 11, manifestazioak egingo dira **11:00etatik 13:30era** gutxi gorabehera (Antiguoko tuneletik eta Pio XII.a-Erdialdetik abiatuta) eta **17:30etik 19:30era** gutxi gorabehera (Antiguoko tuneletik eta Gros-Erdialdetik abiatuta), eta manifestazio horiek direla-eta Dbuseko zerbitzuetan aldaketa hauek egingo dira.

MANIFESTAZIOAK GOIZEAN (11:00etatik 13:30era gutxi gorabehera)

- **5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:**

- Erdialderantz: Pio Barojatik zirkulatuko dute, Izostegitik, Pio XII.etik, Bizkaia pasealekutik, Gernikako Arbolatik eta Foruetatik (17 linearen geldialdiak), eta Santa Katalina zubiraino baino ez dira iritsiko (Ibilbide bukaerako geldialdia). Ondarreta, Zubieta plaza, Askatasunaren hiribidea 31, Okendo 5, Boulevard 19, Boulevard 17 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez dira gelditukо. Horietan gelditu ordez, **Esklabetan, Foruen pasealekuan eta Santa Katalina zubian** egingo dituzte geldialdiak.

- Antiguo alderantz: Santa Katalina zubitik aurrera, Frantziako pasealekutik eta Iparreko Geltokitik (geldialdia) joango dira; gero, Urumea pasealekutik (37 linearen geldialdia), Agirre Lehendakariaren zubitik, Pio XII.etik, Izoztegitik eta Pio Barojatik, eta Mikeleteetan ohiko ibilbideari helduko diote berriro. Boulevard 17, Boulevard 19, Gipuzkoa plaza, Urbieta 6, Urbieta 20, Zubieta-San Martin, Mirakontxa, Miramar jauregia, Baenako dukea, Sanserreka eta Sanserreka-Kiroldegia geralekuetan ez dira gelditukо. Horietan gelditu ordez, **Santa Katalina zubian, Iparreko Geltokian eta Urumea pasealekuan** egingo dituzte geldialdiak.

- **8-Gros-Intxaurrondo, 13-Altza eta 14-Bidebieta:**

Colón pasealekuraino baino ez dira iritsiko, eta Mirakruz-Pinudin (**8 linea** Iparragirren) egingo dute ibilbide bukaerako geldialdia. Kursaal, Boulevard, Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren hiribidea geralekuetan ez dira gelditukо. Horietan gelditu ordez, **Mirakruzen edo Iparragirren** egingo dituzte geldialdiak, dagokien arabera.

- **<u>9-Egia-Intxaurrondo</u>:**

Frantzia pasealekutik iritsiko da, Maria Cristina zubitik eta Foruetatik, Santa Katalina zubiraino (ibilbide bukaerako geldialdia) eta bere ibilbideari helduko dio berriro. Iztuetan geldialdia egingo du, bidaiariak jaisteko. Euskadi plaza, Askatasunaren hiribidea 6, Okendo 18 eta Askatasunaren hiribidea 7 geralekuetan ez da geldituko. Horietan gelditu ordez, **Santa Katalina zubian** egingo ditu geldialdiak.

- **<u>19-Aiete-Bera Bera</u>:**

- Erdialderantz: La Cumbretik aurrera, Aldapetatik jaitsiko da, San Bartolometik, eta Urbieta 38an ibilbide bukaerako geldialdia egingo du. Easo 27, Okendo 11 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez da geldituko. **Urbieta 38ra** eramango dira.

- Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 38tik aurrera. Gipuzkoa plaza eta Urbieta 6 geralekuetan ez da geldituko. **Urbieta 38ra** eramango dira.

- **<u>26-Amara- Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak</u>:**

- Erdialderantz: Antso Jakitunetik aurrera, 26 lineak egiten duen bidea egingo dute, ibaitik eta Foru pasealekutik (geldialdiak), eta Santa Katalina zubiraino baino ez dira iritsiko (ibilbide bukaerako geldialdia). Easo plaza, Easo 19, Okendo 11, Boulevard 11 eta Boulevard 13 geralekuetan ez dira geldituko. Horietan gelditu ordez, **Foruen pasealekuan eta Santa Katalina zubian** egingo dituzte geldialdiak.

- Amara alderantz: Santa Katalina zubitik aurrera, Frantziako pasealekutik joango dira; gero, Iparreko Geltokitik (geldialdia), FG Lorcatik, Urumea pasealekutik (37 linearen geldialdia), Agirre Lehendakariaren zubitik eta Pio XII.etik, eta Madril hiribidean ohiko ibilbideei helduko diete berriro. Boulevard 9, Boulevard 13, Urbieta 6, Urbieta 12, Urbieta 58, Mendeurrena, Antso Jakituna 12 eta Antso Jakituna 28 geralekuetan ez dira geldituko. Horietan gelditu ordez, **Santa Katalina zubian, Iparreko geltokian eta Urumea pasealekuan** egingo dituzte geldialdiak.

- **<u>36-San Roke-Aldakonea</u>:**

- San Roke alderantz: Frantzia pasealekutik joango da, Iparreko Geltokitik, FG Lorcatik, Urumea pasealekutik, Agirre Lehendakariaren zubitik eta Pio XII.etik. Izostegitik eta Lazkano pasealekutik igoko da, eta San Roketik jaitsiko, eta San Roke 12an ohiko ibilbideari helduko dio berriro. Euskadi plaza, Askatasunaren hiribidea 20, Urbieta 12, Urbieta 38, Arroka plaza eta San Roke 2 geralekuetan ez da geldituko, eta, horietan gelditu ordez, **Iparreko Geltokian eta San Roke 12an** egingo ditu geldialdiak.

- Aldakonea alderantz: San Roketik jaistean, San Roke 13 geralekutik aurrera, Belokatik joango da La Cumbreraino. Gero, Lazkano pasealekutik jaitsiko da, Izostegitik, Pio XII.etik, eta Gernikako Arbolarantz irtengo da, Foruen pasealekurantz (17 linearen geldialdiak) eta Santa Katalina zubirantz (geldialdia behin-behineko zutoinean), eta handik bere ibilbideari helduko dio. San Roke 7, Easo plaza, Easo 27 eta

Askatasunaren hiribidea 21 geralekuetan ez da gelditu, eta, horietan gelditu ordez, **Foruen pasealekuan eta Santa Katalina zubian** egingo ditu geldialdiak.

- **<u>37-Rodil-Zorroaga</u>:**

- Zorroaga alderantz: autobusak Colón pasealekuan eta Frantzia pasealekuan ibiliko dira, eta gero ohiko ibilbidea egingo dute. Kursaal, Askatasunaren hiribidea 7 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez da gelditu, eta, horietan gelditu ordez, **Colónen eta Iparreko Geltokian** egingo ditu geldialdiak.

- Rodil alderantz: Foruetatik Santa Katalina zubiraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean), eta Mirakruzen ohiko ibilbideari helduko dio. Askatasunaren hiribidea 3 geralekuan ez da gelditu, eta, horretan gelditu ordez, **Santa Katalina zubian** egingo ditu geldialdiak.

- **<u>40-Gros-Antiguo-Igara eta 45-Renfe-Bus geltokiak-Antiguo-Aiete</u>:**

- Antiguo alderantz: Colónetik edo Iparreko Geltokitik aurrera, Frantziako pasealekutik jarraituko dute; gero, FG Lorcatik, Urumea pasealekutik, Agirre Lehendakariaren zubitik, Pio XII.etik, Izoztegitik eta Pio Barojatik, eta Mikeleteetan ohiko ibilbideari helduko diote berriro. Askatasunaren hiribidea 18, Urbieta 20 eta Zubieta-San Martin geralekuetan ez dira gelditu, eta, horietan gelditu ordez, **Colónen (40 linea), Iparreko Geltokian o Zumalakarregin** egingo dituzte geldialdiak.

- Gros alderantz: Zumalakarregitik aurrera, Pio Barojatik igoko dira, eta Izostegitik jaitsiko. Pio XII.era iritsiko dira, eta, handik, Gernikako Arbolarantz eta Foruen pasealekurantz (17 linearen geldialdiak), eta Santa Katalina zubirantz egingo dute (geldialdia behin-behineko zutoinean). Handik aurrera, ohiko ibilbideari helduko diote. Ondarreta, Zubieta plaza eta Askatasunaren hiribidea 21 geralekuetan ez dira gelditu, eta, horietan gelditu ordez, **Esklabetan, Bizkaia pasealekuan, Gernikako Arbolan, Maria Cristina zubian eta Santa Katalina zubian** egingo dituzte geldialdiak.

<u>MANIFESTAZIOAK ARRATSALDEAN (17:30etik 19:30era gutxi gorabehera)</u>

- **<u>5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga</u>:**

- Erdialderantz: Pio Barojatik zirkulatuko dute, Izostegitik, Pio XII.etik, Antso Jakitunetik eta Easotik, eta San Bartolome kaletik Urbieta 38ra iritsiko dira (ibilbide bukaerako geldialdia). Ondarreta, Zubieta plaza, Askatasunaren hiribidea 31, Okendo 5, Boulevard 19, Boulevard 17 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez dira gelditu. Horietan gelditu ordez, **Esklabetan eta Urbieta 38an** egingo dituzte geldialdiak.

- Antiguo alderantz: Urbieta 38tik aurrera, Mendeurrenetik zirkulatuko dute, Antso Jakitunetik, Pio XII.etik, Izostegitik eta Pio Barojatik, eta Mikeleteetan ohiko ibilbideei helduko diete berriro. Boulevard 17, Boulevard 19, Gipuzkoa plaza, Urbieta 6, Urbieta

20, Zubieta-San Martin, Mirakontxa, Miramar jauregia, Baenako Dukea, Sanserreka eta Sanserreka-Kiroldegia geralekuetan ez dira gelditukо. Horietan gelditu ordez, **Urbieta 38an** egingo dituzte geldialdiak.

- **8-Gros-Intxaurrondo, 13-Altza eta 14-Bidebieta:**

  - Erdialderantz: Jaialai ingurura baino ez dira iritsiko (ibilbide bukaerako geldialdia), eta Pasaia kaletik sartuko dira (13 eta 14 lineak) edo Zubiaurretik (8 linea). Jesuitak, Mariaren Bihotza, Kursaal, Askatasunaren hiribidea 6, Boulevard 3, Boulevard 15 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez dira gelditukо. Horietan gelditu ordez, **Jaialain** egingo dituzte geldialdiak.

  - Auzoetarantz: Jaialaitik aurrera, 13-14 lineek ohiko ibilbideari helduko diote berriro. 8 lineak Ategorrieta hiribidetik jarraituko du, eta, Fernando Sasiainen bira eginda, Monsetik jaitsiko da (Kotxetegiak inguratuz) eta Pilarreko aldapa zaharretik bere ohiko ibilbidea egingo du. Boulevard 3, Boulevard 15, Gipuzkoa plaza, Askatasunaren hiribidea 21, Askatasunaren hiribidea 19, Pinudi-Mirakruz, Vasconia, Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa, Nafarroako hiribidea 34, Arbos Maisua eta Renfe Zubiaurre 27 geralekuetan ez dira gelditukо. Horietan gelditu ordez, **Jaialain** egingo dituzte geldialdiak.

- **9-Egia-Intxaurrondo:**

  - Erdialderantz: Epaitegietaraino baino ezingo dira iritsi (ibilbide bukaerako geldialdia). Zuhaiztiko biribilgunean noranzko aldaketa egingo du. Euskadi plaza, Askatasunaren hiribidea 6 eta Okendo 18 geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Epaitegietan** egingo ditu geldialdiak.

  - Egia alderantz: Epaitegietatik aurrera bere ohiko ibilbideari helduko dio. Okendo 18 eta Askatasunaren hiribidea 7 geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Epaitegietan** egingo ditu geldialdiak.

- **19-Aiete-Bera Bera:**

  - Erdialderantz: La Cumbretik aurrera, Aldapetatik jaitsiko da, San Bartolometik eta Urbieta 38an ibilbide bukaerako geldialdia egingo du. Easo 27, Okendo 11 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez da gelditukо. **Urbieta 38ra** eramango dira.

  - Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 38tik aurrera. Gipuzkoa plaza eta Urbieta 6 geralekuetan ez da gelditukо. **Urbieta 38ra** eramango dira.

- **26-Amara- Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:**

  - Erdialderantz: Antso Jakitunetik aurrera, Easo kaletik jarraituko dute, eta San Bartolome kaletik Urbieta 38raino iritsiko dira (ibilbide bukaerako geldialdia). Gernikako Arbola, Maria Cristina zubia, Easo 19, Okendo 11, Boulevard 9 eta Boulevard 13

geralekuetan ez dira gelditu ordez, **Easo plazan eta Urbieta 38an** egingo dituzte geldialdiak.

- Amara alderantz: Urbieta 38tik aurrera, ohiko ibilbideak egiten jarraituko dute. Boulevard 9ko geralekua, Boulevard 13koa, Urbieta 6koa eta Urbieta 12koa kendu egingo dira. Horietan gelditu ordez**, Urbieta 38an** egingo dituzte geldialdiak.

- **<u>36-San Roke-Aldakonea</u>:**

- San Roke alderantz: Frantzia pasealekutik joango da, Iparreko Geltokitik, Prim kaletik, Morazatik, Urbietatik eta Pedro Egañatik, eta Easo kaletik aterako da. Gero, Lizarra kaletik Arroka plazarantz egingo du, eta han bere ohiko ibilbideari helduko dio berriro. Euskadi plaza, Askatasunaren hiribidea 20, Urbieta 6 eta Urbieta 38 geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Iparreko Geltokian eta Arroka plazan** egingo ditu geldialdiak.

- Aldakonea alderantz: Easo plazatik aurrera, Morazatik jarraituko du, Urbietatik eta Mendeurrenetik, eta Parke kalean bira egingo du, Mundaiz zubirantz, Urumea pasealekurantz, Loiolako Erribera pasealekurantz, eta Saihesbidera sartuko da (GI-20), eta Kotxetegien ondotik aterako. Zubiaurretik Jaialai bidera iritsiko da eta bertan ohiko ibilbideari helduko dio Konkorrenearantz. Easo 27, Askatasunaren hiribidea 21, Pinudi, Vasconia eta Ategorrieta geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Easo plazan eta Jaialai 8an** egingo ditu geldialdiak.

- **<u>37-Rodil-Zorroaga</u>:**

- Zorroaga alderantz: Manteo ingurutik jaistean ezkerrera egingo du, Nafarroa hiribidetik (Groseko Anbulatorioan geldialdia), eta Pasaia kaletik sartuko da, Jaialaiko tunelerantz. Egiako galtzadatik eskuinera jiratuko du, eta Zuhaiztiko biribilgunera iritsiko da, eta Iztuetatik Frantzia pasealekura. Han, bere ibilbideari helduko dio berriro. Mariaren Bihotza, Kursaal, Askatasunaren hiribidea 7 eta Gipuzkoa plaza geralekuetan ez da gelditukо, eta, horietan gelditu ordez, **Groseko Anbulatorioan eta Iparreko Geltokian** egingo ditu geldialdiak.

- Rodil alderantz: Bizkaia pasealekutik aurrera, Mundaiz zubian jiratuko du, Urumea pasealekurantz, Loiolako Erribera pasealekurantz, eta Saihesbidera sartuko da (GI-20), eta Kotxetegien ondotik aterako. Zubiaurre pasealekutik irtengo da, Jaialaiko tuneleraino, eta puntu horretatik bere ibilbideari helduko dio. Gernikako Arbola, Maria Cristina zubia, Askatasunaren hiribidea 3, Pinudi eta Vasconia geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez, **Antso Jakituna 33an eta Jaialain** egingo ditu geldialdiak.

- **<u>40-Gros-Antiguo-Igara</u>:**

- Antigua alderantz: ibilbide bukaerako geldialdia Jaialain (13-14 lineak) Ategorrieta hiribidetik jarraituko dut, Irungo noranzkoan, eta Fernando Sasiainetik sartu, eta

Saihesbidera sartuko da (GI-20). Urumeako Erriberatik aterako da, eta Zuaznabar kaletik, Pio XII.etik, Izostegitik eta Pio Barojatik joango da, eta Mikeleteetan bere ibilbideari helduko dio. Ategorrieta 41, Galtzara Nagusia 21, Colón, Askatasunaren hiribidea 18, Urbieta 20 eta Zubieta-San Martin geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Jaialain eta Zumalakarregin** egingo ditu geldialdiak**.**

- Gros alderantz: Zumalakarregitik aurrera, Pio Barojatik gora egingo du, eta Izostegitik jaitsiko da. Pio XII.era iritsiko da, eta handik Gernikako Arbolarantz irtengo da (geldialdia Mundaiz zubian). Zubitik bira egingo du, eta Urumea pasealekurantz joango da, eta Loiolako Erribera pasealekurantz, eta saihesbidera sartuko da (GI-20), eta Kotxetegien ondotik aterako. Ategorrieta hiribideraino eta Nafarroa hiribideraino jaitsiko da, eta Pasaia kaletik sartuko da Jaialaira iristeko (ibilbide bukaerako geldialdia). Ondarreta, Zubieta plaza, Askatasunaren hiribidea 19, Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa, Nafarroako hiribidea 34 eta Ategorrieta 41 geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Mundaiz zubian eta Jaialain** egingo ditu geldialdiak.

- **45-Renfe-Bus geltokiak-Antiguo-Aiete:**

- Antigua alderantz: FG Lorcatik aurrera (geldialdia behin-behineko zutoinean), Urumea pasealekutik jarraituko du, eta Agirre Lehendakariaren zubitik, Pio XII.etik, Izoztegitik eta Pio Barojatik, eta Mikeleteetan ohiko ibilbideari helduko dio berriro. Iparreko Geltokia, Askatasunaren hiribidea 18, Urbieta 20 eta Zubieta-San Martin geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **FG Lorcan eta Zumalakarregin** egingo ditu geldialdiak.

- Erdialderantz: Zumalakarregitik aurrera, Pio Barojatik igoko da, eta Izostegitik jaitsiko. Pio XII.era iritsiko da, eta handik Gernikako Arbolarantz, Foruetarantz (17 linearen geldialdiak). Maria Cristina zubian jiratuko du, eta FG Lorca kalearen hasieran ibilbide bukaerako geldialdia egingo du (geldialdia behin-behineko zutoinean). Ondarreta, Zubieta plaza eta Askatasunaren hiribidea 31 geralekuetan ez da gelditukо, eta horietan gelditu ordez **Esklabetan, Bizkaia pasealekuan, Gernikako Arbolan eta FG Lorcaren hasieran** gelditukо da.

Gainera, manifestazioek aurrera egin ahala aldaketa gehiago egon daitezke.

Gutxieneko zerbitzuak azaroaren 11n greba orokorraren ondorioz

Bestalde, greba orokorrerako deialdia dela eta, Dbusek azaroaren 11ko **egun osoan gutxieneko zerbitzuak** eskainiko ditu, honako ondorio hauekin:

1) **Linea hauetan ordutegiak eta maiztasunak murriztuko dira:** 5-Benta Berri, 8-Gros-Intxaurrondo, 9-Egia-Intxaurrondo, 13-Altza, 14-Bidebieta, 16-Igeldo, 18-Seminarioa, 19-Aiete-Bera Bera, 25-Benta Berri-Añorga, 26-Amara-Martutene, 28-Amara-Ospitaleak,

32-Puio-Errondo, 36-San Roke-Aldakonea, 37-Rodil-Zorroaga, 40-Gros-Antiguo-Igara eta 45-Estaciones Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete.

2) **Linea hauetan zerbitzua ez da bermatuta egongo:** 17-Gros-Amara-Miramon, 23-Errondo-Puio, 33-Larratxo-Intxaurrondo-Berio-Igara, 35-Antiguo-Aiete-Ospitaleak, 38-Trintxerpe-Altza-Molinao, 42-Aldapa-Egia eta 46-San Antonio-Morlans.

3) **Linea hauetan ez da zerbitzurik emango:** 21-Amara-Mutualitateak, 24-Altza-Gros-Antiguo-Intxaurrondo, 27-Altza-Intxaurrondo-Antiguo-Gros, 29-Hego Intxaurrondo Sur, 31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza, 41-Gros-Egia-Martutene eta 43-Anoeta-Igara.

Informazio gehiagorako, kontsultatu www.dbus.eus helbidean edo 900 840146 telefonora deituta.